


Kaixo, lagunak! **Maddi** Sanchez naiz, 5 urte ditut eta Bedian bizi naiz. 4 urte nituela egin nuen *Afrikarra* marrazkia eskaini nahi dizuet XINGOLA apaintzeko. Musu bat.



zorion agurrak

Kaixo, ni Beasaingo Nora Jauregi naiz eta 7 urte ditut. Marrazki eta poesia hau amona Felipari oparitzeko egin dut, joan den azaroaren 1ean bere urtebetetze eguna zelako. Zorionak, amona, eta urte askotarako!!




Nola duzu izena?
Jarri ezazu Felipa.
Nola duzu abizena?
Mujika lehena.
Eta ofizioa?
hazten det oilaskoa.
Non jaio ote zinen?
baserri eder baten.
Non zara bizitzen?
Legazpiko etxe baten.
Nor zenuen ama?
Maria Manuela.
Nor zenuen aita?
Martin gizon galanta.
Zenbat urte bete dituzu?
Hori nola galdetu didazu.

Julen Montserinen eskutitz bat jaso dugu XINGOLAn. Julenek Gasteiztik idatzi digu, eta Shin Chanen marrazki hau marraztu digu Zure Txokoa atalean argitaratzeko.

Mila esker zure marrazkiagatik, Julen!

zorion agurrak

Xabat Alberdi Santamaria nire lehengusua zoriondu nahi dut, azaroaren 21ean 7 urte bete zituelako. Zorionak eta musu handi bat, Xabat!! Garazi Goñi



zozketa

Kaixo, lagunak!!!

Ez ahaztu opari mordoa dugula zuen artean zozketatzeko. Bidali, beraz, zuek egindako edozein marrazki, ipuin, txiste, argazki, bertso, olerki... XINGOLako helbidera, eta gure zozketan sartuko zarete. Gogora ezazue oraindik Gari Berasaluzek idatzitako *Tulipa Gorriak* liburuaren bost ale eta Urtxintxa Eskolak kaleratutako *Euskal Jolasen Bilduma 2* lanaren 5 CD-ROM ditugula zuen artean banatzeko. Animatu, bidali zure eskutitza eta zehaztu zein opari jasotzea gustatuko litzaizukeen.

Bidali arin zure eskutitza!!!

Arduraduna: Nagore Etxeberria Pikabea

Bidali zure gutunak
helbide hauetara:

Posta elektronikoa

xingola@egunkaria.com

Egoitza nagusia

EGUNKARIA Gudarien etorbidea z/g 20140 Andoain